

S A R A'tik, 1946⁵⁰ Abenduaren 17ⁿ

LAFITTE'tar Piarres jaunari
USTARITZ'era.

Nere adiskide:

Eskerregaz bakarrik ordaintzen zaitut, IKVSKA argitaratzen lagundu nauzulako. Or bialtzen dizut orain-
go sailletik bat.

Gauza berri bat nai nizuke galdetu. Aldizkako "Revue des Etudes Basques" argitaratzeko asnotan gabiltz: datorren Otsaille'rako atera-
tzeko ustez, al ba-degu. Orretarako zuri lantxo bat eskatzen dizut: ger-
la-aroa (azkenekoan alegia) zer ikaskuntza euskeraren buruz egin eta
argitaratu diren erakutsi zaiguzu. Luze xamar izan arren, ez da axola:
zure lanak sakonak izaten dire, eta luzeak eta obegoak derizkigu. Eginen
al-azu? Erran, mesedez.

Zure erantzunaren itzaropenean gelditzen da zure adiskide

Barandiaran J. J. Lu

Sara'tik, 1948ko Apirilaren 8^a
Lafitte Firre jaun apherari
Ustaritzera.

A. 19

Here adiskide:

Ara enen Altube jaunaren zuzenbidea:

Hôtel de l'Europe - Pau.

Gauzeis artu duzu Evsko-Jakintza (aurituzo 1. argitaldian) eta zure lanaren sorta
berria. Orai berre 5 argitaldi zor ditugu urte mitan. Dirua eskularatzen detalarik, eginen
ditugu laster.

Bear bada, badakizu ilonen 29tik Agurilaren 3 arte Musée Basque en iaian
dituzula IKVSKA'ren italdiak, zure ikaslanetan nola asi eta faiak nola iker gastei
erakusteko. Italdi neta oriek lagun gutxienezal dire: beutan evsko-ikaslanetan lanari lotu
nai direnentzat. Zuk eragiturik badituzun gai orietan sartu nai duten gasteak (estudiante,
aphezgai, et.) adierari zuzu, Orri, egun orietan Bayonako Musée orietara jua dituzela.

Ata nere azurrak oborenak Barandiaran ppu